

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--



Legazpiko Agenda 21eko Foroa berriro elkartu da, 28 pertsonekin eta hiru gai landu ditu....

3 gai garrantzitsu...

- **Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko proposamena** aztertu eta horren gainean eztabaidatu. Gure ustez, proiektuaren idazlan teknikoa egingo denean zein gai dira garrantzitsuak eta kontutan hartu beharrekoak?
- Joan den 2006ko apirilaren 6ko bileran antzemandako oinezkoen eta bizikletarien mugikortasunerako "puntu kritikoen" gainean egin diren jarduketan eta haien egoeraren berri Foroari eman. Kontuak emanez!
- **Ingurumenaren Astea-Aste Berdea 2007** ekitaldiaren aurrean, gutxi gorabehera behin betiko izango den ekintzen programa zehaztu (aurreko bileran landu eta proposatu genuenaren arabera).

Eta 28 pertsona, gure ikuspegia eta ideiak eman nahi izan ditugunak.

Eskerrik asko, ohi bezala, eztabaidatzeko eta elkarrekin eraikitzeko gunea bizirik mantentzen duzuelako. Eskerrik asko, halaber, lan egiteko moduan edo bilerak planteatzeko moduan, hobetzeko pistak ematen dizkiguzuelako ... Horrela goaz aurrera!

Izena
▪ Montse Vallejo
▪ Mila Noguera
▪ Mariano Guerreiro
▪ Rafael Gómez
▪ Roberto González
▪ Maite Lázaro
▪ Juncal Fernandez
▪ Jose Ignacio Gil
▪ M ^a Cruz Alustiza

Izena
▪ Eugenio Gil
▪ Javier Iraeta
▪ Vicente Garmendia
▪ Manuel Fernandez
▪ Iker Azurmendi
▪ Iñaki Mauleón
▪ Josune Makaia (UGGASA)
▪ Arantxa Segurola
▪ Jose Luis Zabaleta

Izena
▪ Floren Gutierrez
▪ Martin Gonzalez Ausin
▪ Manoli Conejo
▪ Begoña Santillán, M ^a Mar Martínez, Arantxa Ibarreta (Iratzarri elkartekoak)
▪ Inma Hernandez (A21eko teknikaria)
▪ Juan Ramón Larrañaga (Alkatea)
▪ Iciar eta Zorione, de Prometea, S.C.

OHARRA: Ezin duela etorri adierazi du Joxan Auzmendik (baina posta elektronikoz bidali digu Aste Berdea antolatzeko bere proposamena; guztion artean adostutakoari gehitu diogu bere ekarpena...).

Bileraren emaitzak? Gaiz gai, segidan!

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--

Lehenengo gaia: Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko proposamena, zer dio Agenda 21eko Foroak?

Legazpiko Udalak bultzatu du **Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko proposamena**. Gai korapilotsua da eta hortxe ari dira lanean **Legazpiko kolektibo desberdinak** (zonaldeko dendariak eta ostalariak, taxilariak,..); horretarako **bide desberdinak erabiltzen ari dira** (udaletxearen web orria, talde zehatz horiekin bilerak,...). Testuinguru horretan sartzen da aipatu proiektua Legazpiko Agenda 21eko Foroan eztabaidatzearena. Modu horretan, gure taldearen ikuspegia gehituko dugu.

Segidan, ahalik eta modu argienean eta laburrenean, ordu betez izan dugun eztabaidak eman duena jasoko eta islatuko dugu. Eta gehiagorako ere emango zigun!

● Oinezkoentzako egokitzea diogunean... zer esan nahi dugu?

Taldeak gaia hobeto uler dezan, irudiak erabili ditugu eta kale bat oinezkoentzako egokitzea proposatzen denean bi ikuspegi edo aukera egon daitezkeela jakin dugu:



“100% OINEZKOENTZAKO”

- **Oinezkoentzako erabat izango den kalea, hau da, ibilgailuen pasabiderako “itxita” dagoen kalea** (zamalanelarako, larrialdietarako eta –egongo balira- garajeetara sartzeko izan ezik); **oinetzkoentzako, bizikletarientzako,... izango den kalea**
- Aukera horren alde eginez gero, hainbat aldaketa egin beharko dira Kale Nagusian:
 - Zonaldeko **trafiko berrantolatu behar da** (Aizkorri kalea norabide bakarreko kalea izatera pasatuko litzateke).
 - **Taxien geralekua aldatu egin behar da** (adibidez, osasun-zentroaren parean jar daiteke).
 - **Autobusaren ibilbidea aldatu eta egokitu behar da** (ibilbidea hau izan daiteke: Patrizio Etxeberria-Aizkorri-errotanda).
 - Kanean dauden **garajeetara** (bat edo bi) **sartzea ahalbidetu behar da**. Modu berean **bizilagunek aukera izan behar dute euren ibilgailuekin sartzeko** – ordutegi zehatzean eta beti larrialdietarako-.
 - **Hondakinen edukiontzia birkokatu behar dira**, egun Kale Nagusian dauden edukiontzia non jarriko diren erabaki behar da kamioiak jaso ditzan.



“OINEZKOENTZAKO ETA IBILGAILUENTZAKO GUNEA”

- **Kalea oinezkoentzako egokitu da baina ibilgailu pribatuak ere bertatik igaro ahal izango dira**. Kasu honetan ibilgailuak kaletik igaro daitezke baina mugatutako abiadura izango dute, oinezkoek lehentasuna dutelako.
- Aukera horren alde eginez gero, Kale Nagusian:
 - Kaletik igaroko diren ibilgailuen abiadura **orduko 20-30 km-ra mugatuko da**.
 - **Zamalanelarako gunek** gorde edo egokitu behar dira (ibilgailuen joan-etorria ez oztopatzeko).

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--

Bi aukera horietatik edozein hartuz gero, kale Nagusian gaur egun dauden **aparkalekuak desagertu egingo lirateke** (80 aparkaleku). Arazo horri irtenbidea eman behar zaio obrekin hasi baino lehen eta Udalak **bi aukera** osagarri proposatu ditu: batetik, Euskal Herria plazan dagoen lurpeko aparkalekua erabiltzea; eta bestetik, etorkizunean, paper-fabrika dagoen zonalderako aurreikusi den hirigintza-garapenean, epe luzean, eraikitzea aurreikusi diren 400 aparkalekuak erabiltzea. Modu berean, obrei hasiera eman baino lehen **“aparkatzea debekatuta”** lema sentsibilizatzeko elementua izan daitekeela uste du foroak.

- **Bi aukera horiek aintzat hartuta, nola irudikatzen dugu Kale Nagusia? Behin betiko proiektua egin aurretik gure ustez kontutan hartu behar diren gaiak:**

Errorea!

BERDEGUNEAK.

- Eztabaidatu ondoren, **zuhaitzak jartzea lehentasunezko gauza dela uste dugu**. Gainera, aintzat hartu beharreko irizpideak zehaztu ditugu:
 - **Zuhaiztia:** Aukeratuko diren espezieak bertakoak izan daitezela eta hazkunde mugatua izan dezatela (kaleko etxebizitzetara eta bizilagunei eragozpenak ez sortzeko); bestetik, mantentze-lan mugatuko espezieak izan daitezela (ur-kontsumoari dagokionez, inausketa..).
- **Modu osagarrian**, eta behin betiko diseinuan egoki joz gero, lore-askaren bat jartzea proposatzen dugu. Hala ere, irizpide batzuk ere zehaztu ditugu:
 - **Lore-askak:** “lorenzaintza iraunkorra” errespetatuko duten espezieak izan daitezela (eta, beraz, erraz zaintzekoak eta ur gutxi behar dutenak). Hala ere, beste gauza batzuk ere kontutan hartu behar dira, hala nola, haurrentzako seguruak izatea (lore-asken forma eta egitura, egur-txirbilak...).

HIRI-ALTZARIA: Argiak.

- Kale Nagusiko **argiak oso egoera kaskarrean** daude eta horregatik erabaki zen lehenbizi kale hori berriz urbanizatzea eta oinezkoentzako egokitzea. Inmak gogora ekarri du CADEM institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkartek Legazpiko kaleetako argikuntzari buruzko azterketa bat egin zutela; azterketa horren ondorioz, hainbat aholku eta iradokizun jaso dira energiaren kontsumoa eta gastua murrizteko eta CO₂ isurketak gutxitzeko.
- Foroak, kaleko argia nolakoa izan behar duen erabakitzerakoan (intensitate, farola-kopurua eta mota...), iradokizun eta aholku tekniko horiek kontutan hartzea erabaki zuen.

HIRI-ALTZARIAK: eserlekuak, paperontziak eta bizikletak aparkatzekoak.

- Kale Nagusian ezinbestekoa dela uste dugu eserlekuak, paperontziak eta bizikletak aparkatzekoak jartzea.

LURPEKO INSTALAZIOAK.

- Proiektuan kontutan hartu beharko dira lurpeko sareak eta instalazioak (telefonía, argia, ura...). Izan ere, hainbat aspektu tekniko eta jarduketaren kostua baldintza dezakete.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--

HONDAKINAK JASOTZEKO EDUKIONTZIAK.

- Foroko hainbat kidek edukiontzia lurpean jartzea proposatu zuten baina Inmak Sasietak Mankomunitatetik aukera horren alde ez daudela esan diote, instalazio horiek arazoak ematen dituztelako (sistema hidraulikoen balio-bizitzari dagokionez, ezin dira sor daitezkeen behar berrietara egokitu, mantentze-lana...).
- Ondorioz, bi izan dira aztertu diren aukerak:
 - Kale Nagusiko **edukiontzia herriko beste gunetan birkokatu** (bizilagunek zertxobait urrunago izango lituzkete edukiontzia).
 - **Edukiontzia Kale Nagusiaren proiektuan integratu**; kaleak azkenean izango duen tratamendu motaren arabera, zabor-bilketako kamioien igarotzea ahalbidetuko duen zoru mota jartzea azter daiteke.

BIZIKLETA AINTZAT HARTU.

- Jarduketa horretan bizikleta aintzat hartu beharra dagoela uste dugu. Horretarako bi aukera eman dira:
 - Kale Nagusirako erabakiko den **proiektuan** bizikletak **integratu** (bereizitako ibilbide bat sortu gabe); modu horretan oinezkoen eta bizikletarien arteko elkarbizitza bultzatzen da.
 - Seinalatutako **ibilbide alternatiboa egitea Nafarroa kalean**, (hori ahal da egin, lekua badagoelako).

ZORUA-GALTZADA.

- Egingo den aukeraren arabera (“%100 oinezkoentzako” edo “eremu konpartitua”), Foroaren ustez zorua edo galtzada erabakitzerakoan aukera hoberenaren alde egin behar da. Hala ere, “kontutan hartu beharreko” irizpideak eman nahi ditugu:
 - **“Plataforma bakarra” eta irisgarritasuna**: erabakiko den aukeraz gain, kale osoa plataforma bakarra izango da, altuera bakarreakoa. Horrek irisgarritasuna ziurtatzea ahalbidetuko digu (batik bat, mugikortasun murriztuta duten pertsonena edo ume-kotxeak,...).
 - **Zoru ez irristakorra**.
 - **Testura eta kolore desberdinekoa**: hartutako aukeraren arabera, oinezkoentzako, ibilgailuentzako, zamalanetarako,... guneak bereizi behar baldin badira, testura desberdinak, marrazkiak edo koloreak erabiltzearen alde egiten dugu. Aukera hori pibotak edo oztopoak jarri baino hobea da, trabak jartzea irisgarritasunaren aurka baitoa.



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--

BESTELAKO GAIAK.

- **Trafikoaren azterketa:** Kale Nagusia “%100 oinezkoentzako” izatea erabakiz gero, trafikoaren azterketa osagarri bat egitea proposatzen dugu; azterketa horrekin alboko kaleek Kale Nagusitik kentzen den trafikoa irentsi dezaketen jakingo genuke. Gai horri dagokionez, eta modu orokorrean, **autoaren erabileraren gaineko pedagogian** sakontzea inportantea dela uste dugu. Horren helburua autoa modu arrazionalen erabili beharraz eta erabilera arrazional horrek dituen onuretzat jabetzea da, oinezkoentzako eremu publikoa berreskuratzea,...
- **Taberna eta ostalaritzako terrazak:** bultzatzearen aldekoa da foroa, eremu horiek zamalanetarako eremuekin bateragarri eginez.
- **Proiektua dela eta, kalean bizi diren pertsonen eman behar zaien tratamendua** (Juanra Larrañagak egindako galdera): eskatu behar al zaie guzti honetaz duten iritzia? Foroaren kideak ez datoz bat erantzunean. Hainbat kide inkesta bat eta bilera berezi bat egitearen aldeko dira; beste batzuk, aldiz, zalantza dute ea kale horretako bizilagunei bakarrik galdetu behar zaien eta inguruko zonaldeetan bizi direnek ere zerbait esateko izan dezaketela uste dute.
- **Sartuko al da Nafarroa kalea jarduketa horretan?** Juanrak, hasiera batean, epe ertain eta luzera, kale biak jarduketa bakartzat hartzea dela helburua erantzun du; baina, hala ere, aurrekontuak direla eta, une honetan Kale Nagusia bakarrik sartuko da.

● Debatearen ondoren, Foroak zein aukeraren alde egiten du?

Foroaren izenean ezin dugu iritzi bakarra eman (bertako hainbat kidek kalea oinezkoentzako egokitzeko eman diren bi aukeren alde egiten dutelako) eta, beraz, **botazio sinbolikoa** egin dugu besoa altxatuz. Emaitza? Hona hemen!

- **“Kale Nagusia %100 oinezkoentzako”** izatearen alde dauden pertsonak: **14**.
- **“Kale Nagusia oinezkoentzako nahiz ibilgailuentzako gunea”** izatearen aldekoak: 9 pertsona.
- **Abstenitu** egin diren pertsonak: **2**.

Beraz, Legazpiko Agenda 21eko Foroak bere iritzia eman du Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko proposamenaren gainean! Iritzi hori jasotzen ari diren beste iritziei gehituko zaie... eta horren azkeneko emaitza denborarekin ezagutuko dugu!

Bigarren aukera: Foroak oinezkoek eta bizikletariak mugitzeko Legazpin antzeman dituen “puntu kritikoak” egoera eta haien gainean egin diren jarduketak.

Denborarik ez dugunez (ordu eta erdi askotan motz egiten zaigu), joan den 2006ko apirilaren 6ko bileran, guztion artean oinezkoek eta bizikletariak Legazpin mugitzeko antzeman genituen “puntu kritikoak” egoera eta haien gainean egin diren jarduketak txosten batean jaso da eta **txosten**¹ hori aurkeztu dugu (2007ko apirileko dataz). Gure hurrengo bileran (ekainaren 14rako aurreikusita duguna) Udalak txosten horren gaineko hainbat alderdi zehaztuko dizkigu.

¹ Akta honi erantsita doakio.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
-----------------------------	---	---

Hirugarren gaia: "2007ko Ingurumenaren Aste-Aste Berdea" ekimenerako prestatu diren ekintzen programa zehaztu.

Aurreko bileran Foroak egin zituen proposamenak kontutan hartu ondoren, Inmak datorren **ekainaren 5ean ospatuko den Aste Berdean edo Ingurumenaren Munduko Egunaren** inguruan burutuko diren ekintzen programa aurkeztu du. Programa hori asmo berriak eta iradokizunak gehitu dizkiogu eta azkeneko programa osatu dugu. Orain programa anitz eta erakargarri honekin legazpiar guztiek bat egitea espero dugu!

EGUNA	ORDUA	LEKUA	EKINTZA
Ekainak 1		Udaletxeko atzeko balkoia	Euskal Herria plazan PANKARTA bat jarriko da, ekainaren 5a INGURUMENAREN MUNDUKO EGUNA dela gogora ekarriz.
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Plazaola ▪ Urtatza 	Legazpiko ikastetxeek leku desberdinetan dauden paneletan Ingurumenaren Munduko Egunarekin zerikusia duten marrazkiak erakutsiko dituzte.
Ekainak 3	9:15	Euskal Herria plaza	<p>TRENA ETA BIZIKLETAREN II. JAIEGUNA. Ingurumenarekin errespetagarriagoak diren garraio-sistemak erabiltzearen alde.</p> <p><i>-Antolatzaileak: UGGASA eta udaletxeak. Laguntzaileak: IHOBE, GIZLOGA, RENFE, GSB Forja eta Korosti, Telleriarteko Txirindulariak, Goierri K.E. eta Kalapie elkarteak-</i></p>
Ekainak 5	10:00	Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan	<p>ESKUALDEKO PRENTSAURREKOA ASTE BERDEA ospatzeko prestatu diren ekintzen berri emateko eta ondoko sariak banatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Argazki-lehiaketa Fokatu Urola Garaia. Gaia: ura * Enpresa txikian Ingurumenaren aldeko ekintza hoberenari eskainitako saria.
Ekainak 5	18:30	Kultur Etxea (Areto Nagusia)	<p>"UNA VERDAD INCÓMODA": Lurraren berotzeak eragiten duen klima-aldaketari buruzko dokumentala. Al Gorek urteetan zehar lurraren berotzeari buruz osatu zuen erakusketa multimedial dago oinarrituta. Iraupena: 96 minutu. Doako sarrera.</p>
Ekainak 8	9:30 – 12:30 17:30 -20:30	Euskal Herria plaza	<p>GURE JOKABIDEA ALDATUZ: URA AURREZTEA:</p> <p>Kalean hezitzaileak ibiliko dira eta herritarrei etxean ura aurrezteko aholkuak emango dizkiete. Txorrotetan ura aurrezteko jartzen diren gailuak eskuratu ahal zango dira. FOKATU UROLA GARAIA argazki-lehiaketan irabazle suertatu diren argazkiak erakutsiko dira. Aurtengo gaia ura izan da.</p> <p><i>Antolatzaileak: UGGASA eta udaletxeak-</i></p>
Ekainak 16	10:00-12:00	10:00etan Euskal Herria plazan elkartu eta Brinkolara joango gara.	<p>IBAIALDE: ibaia bisitatuko da bere ekosistema aztertzeko: ingurunea eta uraren azterketa. Udaletxeko behe-solairuan dagoen Herritarrentzako Arreta-bulegoan eman ahal izango da izena.</p> <p><i>- Foroa proposatutako sentsibilizazio-ekintza -</i></p>
Ekainak 21	18:00	Elizondo parean	<p>ARAZTEGIAK BISITATU edateko urarena (Brinkola) eta hondakin-urena (Zumarraga). Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren laguntzarekin. <i>- Foroaren proposamena -</i></p>
Data jakinaraziko da		Euskal Herria plaza, Latxartegi eta Laubide	<p>"GURE JOKABIDEA ALDATUZ" KANPAINA: PARKEETAN HONDAKINAK BEREIZTEN: jarri berri diren paperontziak modu egokian eta zuzen erabiltzea bultzatuko duten ekintzak. <i>- Foroaren eta ikastetxeen proposamena -</i></p>



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/05/17	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea.
----------------------	--	--

Eta horrela, agur esaten dugu Foroaren gure hurrengo bilerara arte... ekainaren 14an izango dena!

Eta orduan, mugikortasunaren eta irisgarritasunaren gaietan egindako jarduketei buruzko informazio zehatza jasoko dugu (bere garaian antzeman genituen "puntu kritikoak"), eta izango ditugu ere gai gehiago mahai gainean!

Bitartean, 2007ko Aste Berderako prestatu diren ekintzetan parte har ezazue eta ongi pasa! Kontatuko diguzue....

Eskerrik asko!